

IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTE PRIBATUEI, UDAL LOKALAK PREKARIOAN LAGATU AHAL IZATEKO, OINARRI-ARAUREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

Lehenengo.- Lagapen berriak egiteko, Elkar-te eskatzailearen edo eskatzaileen helburu sozialaren arabera, ahalmena duen Departamendu edo Arloak, hurrengo baldintzok betetzen direla, galdutako du:

- a) Elkar-te eskatzaileak edo eskatzaileek Elkar-tearen Estatutuak aurkez ditzatela; horiek, Eusko Jaur-laritzako Elkar-tearen Erregistro Oro-korrean, inskribatuak daudela adieraziko duen oharrekin batera.
- b) Estatutuak, Elkar-tearen Udal Erregistroan inskribaturik, egon daitezela; edo hori ezean, horretarako eskaria aurkeztu dela egiaztatzea.
- c) Urteko iharduera jasoko duen txostena aurkeztua izatea; edo sortu berria den Elkar-tea denean, urtea amaitu bitartean egiteko iherdueraren berri emango duen txostena aurkezte.
- d) Elkar-tearen helbide soziala Basaurin egon dadila, edo bere iharduera batez ere, basauriarrei zuzendua egon dadila.

Bigarren.- Aurretik aipatu diren baldintzak bete direla egiaztatzen denean, gaiaren arabera ahalmena duen Udal Departamendu edo Arloak, Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileari, Erizpena luzatuko dio, honela osatua:

1. Elkar-te eskatzailearen edo eskatzaileen mesedetan lagapena egiteko proposamena; horren edo horien helburu, xede sozial edo ordezkaritza-ren arabera, onura publikokoa edo interes sozialekoa dela iriztearren, komenigarritzat jotzen bada.

2. Dauden lokalen ezaugarriak kontuan izanik, Arlo edo Departamendu bakoitzak proposamena egingo du, lokal horietan bere iharduera garatu dezaketen Elkar-teari edo Elkar-teei lagapena egiteko posibilitatea azalduz.

Hirugarren.- Udal Departamendu edo Arlo espezialduaren txostena aztertu ondoren, Ogasun eta Ondarearen Batzorde Infor-matzaileak lagapen-proposamena luzatuko dio Udalbatzari, legeak eskatzen duen forman egina; eta organo horrek, bere kasuan,

prekarioan lagatuko du, Udalbatzako kideen kopuru legalaren gehiengo absolutuaren aldeko botu bidez.

Laugarren.- Lagapenak irauten duen bitartean, udal lokala okupatzen duen Elkar-tea, lokalaren funtzionamenduaren eta ihardueraren gastu arrunt guztien, kargu egingo da (telefonoa, berogailuak, elek-trizitatea, ura, etab.); eta baita, garbitasun eta mantentze lanak egi-teaz arduratuko da, lokala, higieneko eta apaindurazko baldintza egokietan, edukitzeko helburuz.

Bostgarren.- Udalak, gaian espezializatua den Udal Depar-tamendu edo Arloaren bidez, egiaztatu beharko du, lokala okupatzen duen Elkar-teak, beraren helburu eta xede sozialerako erabiltzen duela aipatu lokala, eta horretarako egokiak diren ekintzak burutzen dituela; eta xede horrekin edozein momentutan egin ahal izango ditu ikuskatze saialdiak. Halaber egiaztatu beharko du, Elkar-te onuradunak ihardueren urteko txostena, araututako epean Departamendu edo Arlo horretan aurkeztu duela, eta dirulaguntzarik eman balitzaio, horiek egoki erabili direla ziurtatuko duen gastuen zuri-garriak ere aurkeztu dituela egiaztatu beharko du.

Seigarren.- Elkar-te batek, aurreko oinarri-arauan esandakoa edo hor jarritako baldintzarik ez balu beteko, ahalmena duen Udal Departamendu edo Arloak espediente administ-ratiboa irekiko dio, nahiz eta interesaturiko Elkar-teari audientzia emango dion; horren ondorioz, lokalaren lagapena kentzeko proposamen ar-rozoitua egin ahal izango du, eta proposamen horri, behin Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak aztertu ondoren, Udalbatzak emango dio ebazpena.

Zazpigarren.- Beste edozein erabilera publiko edo behar sozial delako arrazoiz, ahalmena duen Udal Departamendu edo Arloak, egoki irudituz gero, Seigarren Oinarri-arauan aurrikusitako prozeduraren arabera espediente ireki ahal izango dio, lokalaren lagapena kentzeko helburuz.

Zortzigarren.- Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak, edozein momentutan, irabazi asmorik gabeko elkar-te pribatuei lagatutako lokalen okupazioari buruzko ezein datu eskatu ahal izango dio, ahalmena duen

Departamendu edo Arloari. Aurrekoaren kaltetan gabe, urteko lehen urtelaurdenean, beren esparrupeko Elkarateek okupatzen dituzten lokalei buruzko txosten-zerrenda bidaliko du Arlo bakoitzak, eta hor, lagapenari jarrai-pena ematearen edo ez ematearen aukera azaldu beharko du.

Bederatzigarrena.- Aurreko Oinarri-arauetan xedatutakoaz kanpo, lagapenari amaiera emateko nahiko arrazoitzat hartuko da, beti ere aurretik abisatuta eta interesatuari audientzia eskaini ondoren, lokalaren eta ihardueraren funtzionamenduko gastu arrunten kargu ez egitea, eta baita, nahiko arrazoitzat hartuko da, Laugarren Oinarri-arauan adierazten den lokalaren garbiketa eta mantentze gastuen kargu ez egitea.

Hamargarrena.- Lagapenen ordenu egokia lortzeko xedez, Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak, aurretiko txostenei erantzunez, Arlo espezializatu bakoitzari, libre dauden lokalen berri emango dio, hala nola lokal horien kokapen eta dituzten ezaugarri eta barne-banaketaren berri.